



Astigarragako Udala

Adierazpen instituzionala emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunaren ingurukoa.

2003tik aurrera, emakumeenganako indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik, 115 emakume eta 11 haur erailak izan dira Euskal Herrian. Zenbaki onartezin honen atzean izenak eta izanak daude. Erauzitako bizi proiektuak. Bereziki memorian gorde nahi ditugu, 2022an zehar erail dituzten Sara Pina Iregi, Felisa S. P. eta Maria Luisa Larrañaga.

Indarkeria matxista sistema patriarkal sendo baten ondorio bezala ulertu behar da. Espainiar estatuko gobernuak burutzen duen Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko azken makro-inkestak datu larria mahai-gaineratu zuen: bi emakumetik batek indarkeria matxista pairatu du bere bizitzan zehar.

Urte honetan ere bereziki aipatu nahiko genuke, jai giroan emandako erasoen gorakada eta bereziki substantzia kimikorik gabeko ziztaden bidez egindakoak. Antolatutako emakumeenganako gorroto baten erakusle dira beldurra eta kontrola bilatzen duten eraso hauek.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eragiten duen Berdintasun Legearen erreforma egin da pasa den ikasturtean, indarkeria matxistaren kontzeptualizazioa irekiago bat ekarri duena. Espainiar estatuan ere, Askatasun sexualen legea onartu da. Urte luzeetan mugimendu feministak mahai gaineratutako hausnarketak eta eskaerak kokatu dira lege testu hauetan.

Azaroak 25 hau indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna izango da, jendartean normalizatuen dauden sotileneetatik hasita, hala nola ukitzeak; ahoko lizunkeriak; mezu eta adierazpen sexistak; janzkera, jendarte-sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, eremu publikoa (eskolako patioak, jolastokiak, parkeak) askatasunez okupatzeko zailtasunak; edota emakume eta gizonen arteko berdintasuna

Declaración institucional sobre el día internacional para la eliminación de la violencia machista contra las mujeres

A partir de 2003, desde que comenzaron a recoger datos sobre violencia contra las mujeres, 115 mujeres y 11 niños y niñas han sido asesinadas en el País Vasco. Detrás de este inaceptable número están los nombres y los atributos. Proyectos de vida extraídos. Queremos guardarlos especialmente en la memoria, Sara Pina Iregi, Felisa S. P. y Maria Luisa Larrañaga, asesinados durante 2022.

La violencia machista debe entenderse como una consecuencia de un sistema patriarcal sólido. La última macroencuesta sobre violencia contra la mujer que lleva a cabo el Gobierno del Estado español puso sobre la mesa un dato grave: una de cada dos mujeres ha sufrido violencia machista a lo largo de su vida.

También en este año nos gustaría hacer una mención especial al aumento de los ataques en el ambiente festivo y especialmente a través de picaduras sin sustancias químicas. Estas agresiones que buscan el miedo y el control son muestra de un odio organizado hacia las mujeres.

El curso pasado se ha llevado a cabo una reforma de la Ley de Igualdad que afecta a Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, que ha supuesto una conceptualización más abierta de la violencia machista. En el Estado español también se ha aprobado la Ley de Libertades Sexuales. En estos textos legales se han enmarcado las reflexiones y demandas que el movimiento feminista ha puesto en la mesa durante muchos años.

Este 25 de noviembre será un día para seguir identificando los diferentes aspectos de la violencia machista, empezando por los más sutiles socialmente normalizados, como los tocamientos, las obscenas verbales, los mensajes y expresiones sexistas, el control de la indumentaria, del uso de las redes sociales o de las amistades, las dificultades para ocupar libremente el espacio público (patios escolares, patios, parques) o las decisiones administrativas

zuzenean erasotzen dituzten administrazio-erabakiak. Bigarren estadio batean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak egongo lirarteke, eta, esparrurik bortitzenean, erailketak.

Astigarragako Udalak argi du indarkeria matxistari aurre egin ahal izateko ezinbestekoa dela berdintasun-politikei beharrezko giza baliabide eta baliabide tekniko eta ekonomikoak ematea, eta ildo horretan, uste dugu ikuspegi feministarekin lan egin behar dugula, egunero eta eremu guztietan. Krisiak ez du aitzakia izan behar arazo larri eta kolektibo honi aurre egiteko beharrezkoak diren aurrekontuen murrizketa edo izoztea justifikatzeko.

Eta horregatik, Astigarragako Udalak honako konpromezu hauek hartzen ditu:

Kontzientziazio-, sentsibilizazio- eta erreparazio-lana sustatzen jarraituko dugu, indarkeria matxistak desagerrarazteko bidean aurrera egiteko.

Indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa herriko eragile ezberdinekin batera protokoloa berrikusteko konpromisoa hartzen dugu.

Jai giroan ematen diren erasoei erantzuteko eta hauek prebenitzeko protokoloa berrikusteko konpromisoa hartzen dugu; noski, Emakumeon Etxearekin eta gainontzeko eragile sozialekin adostuta.

Indarkeria matxistarekin zerikusia duten baliabide, zerbitzu eta prozedura guztiak, administratiboak nahiz judizialak, publikoak, doakoak eta ez diskriminatzaileak direla bermatuko dugu.

Neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jabekuntza jarduerak burutzeko bitartekoak jarriko ditugu (Emakumeon Etxearen bidez gauzatuko direnak).

Indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidearen alde guztiak (tartean, egiaren hedapena, kalte-ordainketa, akonpainamendu soziala edo ez errepikatzeko bermea) lantzeko programa iraunkorrak, eta osasun egoerari egokitutakoak, martxan jarriko ditugu.

2023ko aurrekontuetan aurrez aipaturiko baliabide tekniko eta pertsonalak bermatzeko beharrezkoa den ekarpen ekonomikoa egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Astigarragako Emakumeon Etxearekin dugun lankidetzan pausoak ematen jarraituko dugu,

que atentan directamente contra la igualdad de mujeres y hombres. En un segundo estadio estarían las agresiones sexuales y físicas y, en el ámbito más violento, los asesinatos.

El Ayuntamiento de Astigarraga tiene claro que para poder hacer frente a la violencia machista es necesario dotar a las políticas de igualdad de los recursos humanos, técnicos y económicos necesarios, y en este sentido creemos que debemos trabajar con una perspectiva feminista todos los días y en todos los ámbitos. La crisis no debe ser excusa para justificar la contención presupuestaria necesaria para hacer frente a este grave problema colectivo.

Por ello, el Ayuntamiento de Astigarraga se compromete a:

Seguiremos promoviendo la concienciación, sensibilización y reparación para avanzar en la erradicación de las violencias machistas.

Nos comprometemos a revisar el protocolo de respuesta ante la violencia machista junto con los diferentes agentes del municipio.

Nos comprometemos a revisar el protocolo de prevención y respuesta ante las agresiones que se producen en un ambiente festivo, por supuesto de acuerdo con Emakumeon Etxea y el resto de agentes sociales.

Garantizar que todos los recursos, servicios y procedimientos relacionados con la violencia machista, tanto administrativos como judiciales, sean públicos, gratuitos y no discriminatorios.

Pondremos los medios para llevar a cabo actividades de empoderamiento dirigidas a niñas, jóvenes y mujeres adultas (a través de Emakumeon Etxea).

Vamos a poner en marcha programas permanentes y adaptados a la situación de salud para trabajar todos los aspectos del derecho a la reparación de las mujeres que han sufrido violencia machista, desde la difusión de la verdad, la reparación, el acompañamiento social o la garantía de no repetición.

Nos comprometemos a realizar la aportación económica necesaria para garantizar los medios técnicos y personales mencionados anteriormente en los Presupuestos 2023.

Seguiremos dando pasos en nuestra colaboración con Emakumeon Etxea de Astigarraga, reforzando

baliabide pertsonalak, materialak eta teknikoak indartuz.

Azkenik, azaroaren 25aren bueltan Udalak, Emakumeon Etxeak eta gainerako eragileek antolaturiko jardueretan eta mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten diegu astigartar guztiei.

los recursos personales, materiales y técnicos.

Por último, invitamos a todos los astigartarras a participar en las actividades y movilizaciones organizadas por el Ayuntamiento, Emakumeon Etxea y el resto de agentes alrededor del 25 de noviembre.